

EUSKEREAA IZKUNTZA ZAARRA

Lenengo ta bein, kontuan artu dagigun ez dala bardin izkuntzalaritzan agiri zaarrak aitatzea eta izkuntza bera noraiño dan zaarra jakitea.

Euskereak agoz artutako agiriak daukaz eta idatziak be bai.

Idatziak ez dira asko eta ez esanguratsuak.

Agozkoak oso antxiñakoak, zaarrak dira.

Akitania'ko idazkiak euskerea ta latera batera erabilten dabez, erromantzeak sortu baiño gizaldiak lenago.

Erromantze bakoitza latinkumea da eta une baten latiña ta erromantzeak (gastelera esaterako) alkar ulertu eziñera eldu ziran.

Baiña euskereari ez jako jazo olakorik: Latin'en aldiko euskerea eta gaurkoa alkar ulertzen dira, orregaitik euskerea erromantze guztiak baiño lenagokoa da. Noz itz egin ete zan gaur ulertuko ez geunken euskerea edo protoeuskerea? Ez dakigu, baiña latiña sortu baiño lenago beintzat.

Bein Joxemiel Barandiaran'eri itandu eutsoen kromagnon gizakiak euskeraz egiten ete eban. Eta bere erantzuna zurra izan zan: Bai, eta gu konturatuko giñan berari entzun ezkerro, euskeraz ebillala, baiña ez geuntsan ulertuko.

Egia esan, izkuntza guztiak (aldatuta erromantzea, aldatu bagerik euskerea) gizakien asierara garoez eta guztiak zaar-izate edo adin bardiña dauke.

Baiña noiztik egiten da euskeraz berba Auñamendi-inguruan?

Alboan izkuntzak ilten (latera) edo aldatzen (erromantzeak, iberoera, keltera, latera, arabiera) doazen artean, euskerea an dago, geldi!

Ba-dakigu indoeuropearrak noiz etorri ziran eta emen aurkitu eben euskerea, ez latina.

Eta zelan iraun eban euskereak ainbeste gizalditan, ugarte-antzeko izkuntza lez?

Euskerearen ipuiñetatik ateraten da aldi bakoitxeko euskerea, asierara eldu-arte, or agertzen da euskerea oso zaarra dala, Ementxe geure lurralde onetan. Erromatarren agiri idatziak dagoz. Orduan lenengo euskerearen barruan (ipuiñak, esaterako txalgorri, beigorri) gero arrietan eta gero idazkietan, azkenean EITB'ra eldu arte.

Ete daukoz euskereak zaarrak diran esaldiak edo joskerak?

Oraintsu Koldo Mitxelena'k argitaratu dau liburu-txu bat: "Textos arcaicos vascos". Or agertzen dira Akitania'ko idazkiekaz asi eta Erdi-Aro'ko abestietara eldu arteko esaldiak. Iñoz agertzen da ulertu-eziña dan esaldiren bat be: "ikedak ta diqueada". Aldi orretakoa dan Etxepare'ren liburua, idatzi diranen artean lenengoa (1545) eta euskerea gaurkoaren antzeko da, ulertzeko modukoa.

EGUZKIA

Goizian goiztik dator
izpi gozoenakaz
lurra otseintzera,
mendiak artzen dabe
lenengo argi izpiz
eguzki dirdira.

Egiz, gozorik dator
maitasuna zabaltzen
itxaso ertzetik,
mendiak adi daukaz
ongi-naia emonez
biotza zabalik.

Ta zu, eguzki eder,
izardiaren bizia,
zatoz maitekiro,
gizadi on guztiak
gogoz agurtzen zaitu
oparo oparo.

PAULIN



OLAZAR'tar Martin'ek